

## **IRUDIA ETA SOINUA (2. BATXILERGOA)**

### **SARRERA ETA HELBURUAK**

Irakasgai honetan ikasleek aukera izango dute egungo ikus-entzunezko produktuetan parte hartzen duten elementuak aztertzeko eta ulertzeko. Horren ondorioz, ikasleek hainbat gaitasun eskuratuko dituzte: adierazpenerako elementuak eta teknikak aztertzeko gai izango dira eta kritikoak izaten jakingo dute. Beraien formazioan komunikazio digital eta teknologikoetan gaitasunak garatuko dituzte eta hauek arduraz erabili ditzaten bultzatuko da. Gaiaren antolakuntza nagusia praktikoa izango da, teknologia berriei lotuta eta, ikus-entzunezko produktu sinpleen garapenean oinarrituko da, zentzu estetiko eta sentsibilitate artistikoa landuz. Ikus-entzunezko munduari dagozkion teknika, prozedura eta edukietan ezagutza ahalbidetuko da: argazkilaritza, bideoa, zinea, irratia.

### **EDUKIAK**

- **IRUDI FINKOA:** Irudi finkoen (argazkia, marrazkia, kartelak, publizitatea, collagea, etab.) ezaugarriak eta analisiak. Argazki eta maketazio programa, teknika eta materialekin ekoizpenak.
- **ANIMAZIOA:** Irudi finkotik mugimendura, zinemaren hastapenak eta stop-motion teknika. Argazki eta bideo edizio programekin praktikak. Animazio lanen ekoizpenak.
- **SOINUA:** Soinua ikus-entzunezko lanetan, ezaugarriak eta analisiak. Soinu edizio programekin ekoizpenak.
- **MUGIMENDUZKO IRUDIA:** Mugimenduzko irudia (bideoa, animazioa, pelikulak, dokumentalak, ikus-entzunezko lanak, etab.) ezaugarriak eta analisiak. Ikus-entzunezko gidioen lanketa. Ikus-entzunezko lanen ekoizpena. Bideo, irudi eta soinu edizio programekin lan egin.

### **EGOKIA DA IKASKETA HAUETARAKO**

- Arte Ederrak, komunikazioa, diseinua, ikus-entzunezko produkzioa, etab.-ekin erlazionatutako Unibertsitateko ikasketak.
- Goi Mailako Zikloetako Lanbide Arlo hauetarako: Irudia eta Soinua, Irudi pertsonala, argazkilaritza...